

LEP-artekoak apurtzeko trikimailu berria.

Kaixo eilaskide:

Dakizuenez, mahai negoziatzailean, Lekualdatze Lehiaketa araudiaren negoziatioari berriro heldu diogu. LAL-a burutzeko, Enpresak LEP-artekoen plazen identifikazioa uztailean egin zuen eta orain lep-arteko kontratua dutenei jakinariziko ziela adierazi zigun. Baina langileei eskutitza etxera heldu zaionean sorpresa desatsegin batekin topatu gara. LEP-arteko kontratuen izaera zeharo aldatu du. Hau da, LEP-arteko bakanteak zutenei klausula gehigarria kendu zaie, ondoko hau utziz: - Bitartekotasun kontratua (erderazko: contrato de interinidad hasta cobertura de vacante). Aldaketa honekin, Lep-arteko kontratuak LAL prozesu bitartez apurtzeko aukera zabaltzen da betirako.

Steilas sindikatuak hasieratik salatu du Enpresak leku aldatze negoziatioarekin batera beste helburu bat burutu nahi zuela, LEP-artekoen kontratuen suntsipena hain zuzen ere. Idazki honek **steilas**-eko baieztapena berresten du.

Ondoren, gaurko mahai negoziatzailean enpresari eman diogun idazkia helarazten dizuegu.

*2015eko Urriaren 15eko Mahai Negoziatzailean Enpresak jakinarazi zigun bezala lep-arteko kontratua duten hezitzaileak jasotzen ari dira idazki bat berain bakantea identifikatzeko. **steilas** sindikatua ez dago ados idazki horretan jartzen duenarekin.*

***steilas**-ek ez du onartzen Enpresak bidalitako idazkian lep-artekoen lanpostuen identifikazioa egiteko aitxakiarekin, kontratuen amaieraren aldaketa agertu izana. Idazki horietan Enpresak ez du aipatzen kontratuen klausula gehigarriaren zehaztapena: "Kontratu hau amaitzen da postua behin betiko betetzen denean **LEP**aren bidez."*

***steilas**-ek eskatzen du berriro lanpostuen idenfikazioaren dokumentua berriro bidaltzea klausula gehigarria gehituz, kontratuen amaiera data ez aldatzeko.*

steilas sindikatuak, LEP-arteko kontratua duten hezitzaientzat, idazki bat prestatu du empresara bidaltzeko. Dena den, informazio gehiago nahi izanez gero jarri querekin harremanetan.